



## Euskal hiri nagusien eraldaketa



**BALEREN BAKAIKOA  
AZURMENDI**  
EHU-KO IRAKASLEA

**E**konomia zentralizatzen ari den heinean populazioak ere bide bera darama. Hori dela eta, 2050ean munduko populazioaren %66 hiri handietan biziko omen da; Europako populazioaren %73k jadanik egiten duen moduan. Espainiako Estatuaren populazioaren %40 ere, 2030ean, 300.000 biztanle baino gehiagoko hirietan biziko omen da. Bien bitartean, munduko BPGren %80 sortzen da 600 hiri handienetan, non muturreko oparotasuna eta txirotasuna gordinki azaltzen zaizkigun.

Zalantzarik gabe, hiriek aukera gehiago eskaintzen dute nekazari giroko herri txikiek baino, bai lanpostuak aurkitzeko, baita seme-alabeek ikasketak burutu ahal izateko ere. Emakumeak ere erosoago sentitzen dira hirietan herri txiki atzeratueta baino, bai askatasun aldetik, baita lanpostuak ere aurkitzeko orduan. Halaber, oinarritzko zerbitzuak eskuragarriago daude hiri batean herri txikietan baino: osasungintza, hezkuntza...

Euskal Herrian ere populazioa zentralizatzen ari da bertako hiri handienetan eta munduko fenomeno bera bertaratu zaigu. Izan ere, Bilbok betidanik izan du populazioa erakartzeko indarra, Gasteizek, Iruñeak eta Iparraldeko BABk duten bezala; anartean, Donostia ere azken urte hauetan zentralizazio prozesu horretan urrats handiak ematen ari da, nahiz oraindik Gipuzkoa nahiko lurralde orekatua den.

Hemengo herri txikiak ere husten ari dira zerbitzu publiko eroso eta hobeak aurkitzen dituelako populazioak hiriburueta. Ondorioz, hiri nagusien konfigurazioa eraldatzen ari da bertako jarduera ekonomikoren arabera

Laburbilduta, hemengo herri txikiak ere husten ari dira zerbitzu publiko eroso eta hobeak aurkitzen dituelako populazioak hiriburueta. Ondorioz, hiri nagusien konfigurazioa eraldatzen ari da bertako jarduera ekonomikoren arabera. Izan ere, hiri horietan ekonomia bi ardatz nagusitan gauzatzen ari da. Alde batetik, sektore ekonomiko aurreratuak, non ikerketa zentroak eta teknologia garatuko enpresa guneak dauden, soldata erakargarriekin eta unibertsitateetatik irteten diren zenbait ikaslerentzako lanarekin –ez denentzat–; bestetik, turismora zuzendutako negozioak daude, batik bat ostalaritzan.

Bestalde, ohiko merkataritza desgertzen ari da, negozio horiekin lotutako burgesia txikia bezala. Klase horrek hiri-

ko gizarteari kohesio sozial esanguratsua ematen zion eta oso garrantzitsua zen. Egoera horren aurrean, gure agintariek sinestarazi nahi digute sektore hori defendatu eta indartu nahi dutela, baina alderantzizko politika daramate, merkataritzagune erraldoiei alfonbra gorria ipintzen dietelako.

Ekonomiaren bilakaera honetan, gure hirietako denda gehienak frankiziak dira. Izan ere, ohiko denda txikien orde ez guztietako frankiziak sartu zaizkigu, multinazionalekin lotutakoak. Eta berdintsu ematen ari da betidanik ezagutu ditugun ostatueta, horien jabe ere inbertsio funtsak egiten ari baitira, batik bat turismorearen eragina esanguratsua den hirietan. Azpimarratu behar da, sektore horiek eskulan merkea behar dutela, kualifikatu gabea, eta hori guztia hirietako periferian daukate, ugari gainera.

Zer egin periferia txiroetako egoera horretatik irteteko? Nire uste apalean, egoera horri aurre egiteko Gizarte Ekonomiak protagonismoa izan dezake. Horretarako, auzo txiro horietako jendeak, batik bat gazteriak, antolatu behar du udal agintariak presionatzeko eta baliabide ekonomikoak ipin ditzaten. Lehen urratsa, auzo elkarte esanguratsuek sortzea izango litzateke, gerora hiriko premien eta imajinazioaren arabera, enpresa proiektu txiki sendoak garatu ahal izateko. Horretan, eskarmentu ugari dago: Bartzelona-Sants, Berlin... ●